

## KONTRABANDOA

Lehendabiziko biajea egin nuen eta kontrabandismoko biaje horiek egiten jarritu nuen. Hamasei urterekin hasi nintzen eta hogeitahamasei-rekin ezkondu nintzen eta berrogei urterekin utzi nun kontrabandoko bidaiak egiteari . Lehenengo biajean kafea eramane nuen, gaztena nintzenez pakete ttikiena eman zidaten, baina lehenengo biajean bakarrik . Geroago kontserbak, sardinak, atuna, antxoak... eta denetik, espartzinak ere bai. Espartzinak bulto handikoak ziren eta ni gorputz ttikikoa. Gero, gauzak aldatu ziren eta hemendik Frantzira tabako rubioa eramaten genuen eta handik honat almidoia eta sakarina ekartzen genuen. Hemezortzi urterekin Lastondorekin lanean hasi nintzen, karpinterian, miñon, hagitx gutti pagatzen zidan . Gainera, goizez lan egin eta gabez Frantziara joaten nintzen, eta horrela ibiltzen nintzen. Gero, nilonak, kobrea eta erloju despertadoreak ekartzen genituen, pilaka gainera. Beste denboraldi batean Frantziatik honat txatarra ekartzen genuen, gaixtua gainera, punta guztiak zaku barrenan. Beno eta horrela, behi zaharrak ekartzen genituen eta harat bihor zaharrak eramane, hura salsa egiten genuena .

Batzuetan bidea neketsua zen , “ eltzetxoak” ( guardia zibilak ) zeudelako. Guk ezagutzen genituenak, Endarlasan, Usategietan eta Lizuniagan parejaka egoten ziren eta eltzaria harat eramane zuten hortik dator euren izena.

Guk beti horrela deitu diegu. Normalean ez ziren lekuetatik mugitzen , bainan jendeak gauzak esaten zieten eta gure bila etortzen ziren. Eta harrapatzen baziguten paketeak kentzen ziguten. Kuadrila handitan ibiltzen baginen bi pertsona hutsik joaten ziren; bat aurrean eta bestea erdi aldean. Lehendabizikoa 200 metroko distantzian joaten zen, eltzetsoak ikusi ezkerro abisatzeko. Batzuetan binaka joaten ginen, bestela taldeka joanezgero denei harrapatuko ziguten. Hamabost - hogeit lagun joan ezgero hirunaka edo launaka ibiltzen ginen .

Eta beno lan handia egin behar zen, hortan zen gogorra, zertikan igual bidea utzi beharra zen bidaxkatik joateko, eta igual batek biaje handiak in larri larri, orduan gogorra egiten zen eta segun ze karga zen zertikan karga haundia bazen pues...

Almendra izandu zen hemendikan harat bolada handia, eta gainera 50 kilo izaten zituzten. Nik 70 kilo eramaten nituen baina hartzen azkenean bizkarra egiten da. Batzuetan ni baino karga handiagoarekin ibili naiz. Gezurra ematen du baina egia da ; Aski sanuak izaten ginen. Gu deportistak bezala aski eginak ginen ; Denak deportistak, pilotariak... Klaro guk baserriko janaria jaten genuen, eltzaria, gasna, esnea eta lekak ere bai. Nahiz eta orain deportistak berdura eta haragia jan, leno haragia

gutti jaten zen, zerrikia izaten zen hoberena. Gu baginen atta eta ama, zortzi senide eta aman bi osaba izebak eta bai nahiko zaila izaten zen. Beno baina adina ere bai, ni orain egoten naiz pentsatzen nola irauten nuen, zergatikan, klaro, igual bi edo hiru lo ordu eginta lanera joaten nintzen aunitz aldiz ta eguna, koño, nahiko kostatzen ziten bainon ilunabarra ailegatzin berriz biztutzen nintzen, nik ez dakit zer gertatzen ziten. Eta beno...

Zaldi zaharrak eta zerriak ere bai, hemendik harat eramaten ziren. Zerrikumik berriz handik honat ekartzen ziren. Kurrinka ekartzen genituen zakuen barrenean. Ardoa ere bai ekarri zen. Hau zagian ekartzen genuen. Hau hola egiten genuen, zakuan sartzen genuen eta ugal batekin segutzen zen zakuari. Ze ba bertzela eskuakin kontu beharra zen eta orduan makila...

Almendra izaten zen hoberena, zergatik goian zulo bat eginta bidean jaten genuen. Denak gezurrak dirudite, bainan egiak dira ;

Eta gero topatzen zenik antzinekoa zihoana, jakiten zuen eta orduan bertze bidea hartzen genuen. Batzuetan ohiu egiten zuten bigarrenak paketea utzita aldegitoko. Zergatik harrautzen bazizuten, kartzelara joaten zinen edo

bertzela multa. Neri suertu ziten, behin, Sarako aduanatik etortzen zirenean. Haiek mugatikan kilometro batzuetara jartzen ziren gordeta. Goiz aldean guretzat izaten zen hobe zergatik goiz aldera arrisku guttigo izaten zen.

Biaje gogorra zenez, egiten genuena zen, Labiaga aldetikan sartu eta Sara aldera bajatu. Eta handik aunitz ibilita, Zalainera. Astean bi aldiz Zalainera joaten ginen eta bertze biaje Frantziara. Kobrearekin batez ere. Baina Zalainekoa oso bide gogorra zen.

Zato bat eramaten genuen eta baita ere bokadiloa. Eta gainera kuadrilan zatua utziz gero arratsaldeko hustua zen. Eta nik pentsatzen nuen, eurek etorritzero, guri hartu eta beheitti eramango zigutela, baina nik martxa egiten nuen beheittirantz eta ez zen beila tiroka hasi. Bainan Lizuniagara etorri zirenean erran omen zuten “ Y si vive que tenga suerte “

Transmisorea : **Agustín Aguirre**